



Alemaniko

ingurumen-merkatuaren
analisi

Aukerak identifikatzea

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

LABURPEN

EXEKUTIBOA

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Alemaniako ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloa osatzen duten mota desberdinetako agenteei aplikatzeko moduko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzean kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala, Airearen kalitatea (airea eta kutsadura), Hondakinak, Lurzoru kutsatuak, Ekosistemak eta Fabrikazio ekoeraginkorra eta ekodiseinua.*

Merkatu-balioaren ikuspegitik, Alemania da munduko bigarren ingurumen-merkatu handiena, Estatu Batuen ondoren. Eta 2020an 93,7 mila milioi dolarreko balioa lortu zuen.

Kateei dagokionez, lehentasuna eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei, lehen postuetan **daudelarik Uraren ziklo integrala eta Hondakinen kudeaketa.**

Alemaniako Suspertze eta Erresilientzia Planak (DARP) joera argi bat markatzen du eraldaketa digitalaren eta ingurumen-babesaren alde, eta aurreikusten da planaren aurrekontu osoaren gutxienez % 42 bideratuko dela **klima arloko helburuekin** lotutako ekintzak eta hobekuntzak bultzatzera. **Nahiz eta ingurunea oso lehiakorra izan, espero da aurreikusitako inbertsioek aukerak sortuko dituztela** Alemaniako enpresek (edo Alemaniako merkatuan aurkitzen diren beste herrialde batzuetako enpresek) eskaini ezin dituzten zerbitzuak osatu ditzaketen enpresentzat, batez ere balio-kate hauetan: Uraren ziklo integrala, Hondakinen kudeaketa eta Airearen kalitatea.



Alemania dugu, herrialde industrializatuen artean, jasangarritasun arloan aurreratuenetako bat. Erregulatzailer alemanak aktiboak izan dira tradizionalki politikak formulatzean, eta **ingurumen arloko legea zorrotz aplikatzen da**. Pandemiaren osteko testuinguru honetan, bereziki kontuan hartzekoa da **Alemania Suspertze eta Erresilientzia Plana (DARP), gutxienez planaren % 42 bideratuko baita klimarekin lotutako helburuak lortzera: industriaren deskarbonizazioa**, berotegi efektuko gas emisioen murrizketa eta eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Bereziki garrantzitsuak izango dira **birziklapenaren eta uraren ziklo integralaren balio-kateak**, zeintzuek urteko % 6 inguruko hazkundea izango baitute 2030era arte. Joera-aldaketa bat dago aurreikuspen horien oinarrian, ekonomia zirkularraren eta jasangarritasunaren printzipioak gero eta gehiago aplikatzen ari baitira bi industrietan.

Intereseko eskualdeak zehaztean, lehentasuna eman zaio industriaren jarduna eta lehiakortasunaren intentsitatea orekatzeari, eta ondorioz lehentasuna eman zaie Hanburgo, Kolonia eta Stuttgarteko hiriguneei eta euren inguruko lurralde federatuari.

Negozio-joerei dagokienez, hainbat merkatu-nitxo berri agertu dira, erantzuna emateko

trantsizio energetikoari, digitalizazioari eta kontsumitzaileek jasangarritasunaren inguruan duten kontzientziazio gero eta handiagoari. Adibidez, **hondakinen arloan** antzematen diren etorkizunerako aukerak dira: **haize-turbina eta bateria elektrikoek birziklapena** eta moda zirkularreko merkatuak. **Uraren** balio-katean, berriz, hainbat joera identifikatu dira hondar-uretatik hondakin espezifiko batzuk kentzearekin lotuta (esaterako, **hondakin farmazeutikoak edo mikroplastikoak**).

Bestalde, Alemaniako merkatuak oso aukera erakargarriak eskaintzen ditu mugikortasun elektrikoaren arloan ari diren enpresentzat, bai eta ingurumen teknologien arloan lan egiten duten eta euren ikerketa eta garapen instalazioak Alemanian ezartzekotan diren I+G-ko agenteentzat.

Funtsean, Alemania nazioarteko plataforma bat da eta nazioarteko agente ugari eskaintzen dituzte bertan euren ondasun eta zerbitzuak. Horregatik hartu behar da merkatu oso teknologiko eta lehiakortzat. Enpresa txiki eta ertainek Alemanian sartzeko dituzten **zailtasun nagusien** artean daude banaketa-kanaletara sartzeko arazoak, Espainiako produktuaren irudia, prezioen lehiakortasunik eza, eskakizun teknikoak eta hizkuntza. Alemaniako merkaturan arrakastaz sartu ahal izateko ezinbestekoak dira produktu berritzaileak, homologazioak, kalitate eta eskakizun altuak eta prozesu eraginkorrak.



BasqueTrade
& Investment



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60